

BASAGAIN HERRIKO (ANOETA, GIPUZKOA) INDUSKETA
ARKEOLOGIKOAREN

TXOSTENA

XXIX. EKINALDIA

2023KO IRAILA



Historiaurreko Arkeologia Saila

Aranzadi Zientzia Elkartea

Donostia

Zuzendaritza: Xabier Peñalver Iribarren eta Eloisa Uribarri Agirrebengoa

SARRERA

Iraileko lehen hiru asteetan zehar Basagain herriko indusketa-lanak egin ditugu, eta hiru eremutan lan egin arren, eskuhartzearen gehiengoa babeserako horma-atalaren eta herrira iristeko gaur egungo mendibidearen arteko eremura bideratu dugu, iazko ekinaldian elementu interesgarri batzuk azaleratu baitziren.

Honokoak ziren aurtengo ekinaldiko helburu nagusiak: harresiaren ibilbidea zehaztea esparruaren ekialdeko terrazan, gaur egun herrira sartzen den lekuan ustezko sarrera bat topatzea, Basagaineko hegoaldeko muturrean dauden ondoz ondoko terrazetan miaketak egitea (horietako batzuk landaretza-geruza handi batez estalita daude, zati batean babes-eremutik kanpo daudelako).

Aurreko urteetan bezala, herria babesteko lanak egin ditugu, besteak beste, berriki jarritako mugarriak berrikusita. Mugarri horiek zehaztasunez definitzen dituzte Udalak eskuratutako eremuaren mugak, lurjabeei duela gutxi erosi ostean babestua izan den 10 m-ko zerrenda periferikoa barne.

Aldi berean, aztarnategia eta bertako indusketa-lanak jendarteratzeko jarduerekin jarraitu dugu, bailarako herrietako ikasleei eta heldu-taldeeizuzendutako bisita-gidatuen bidez.



2023ko indusketa-ekinaldian parte hartu duten lan-taldeko kideak.

HERRIAREN DESKRIBAPENA

Basagaingo herri harresitua izen bereko mendian dago, itsas mailatik 295 m-ko altuerara, eta Oria ibaitik 227 m-ko altuerara eta 650 m-ko distantziara, Iruraren parean, Anoeta (Gipuzkoa) udalerrian.

Muino luzeska batean kokatua, lurrez estalitako harresi batek oso-osorik inguratzen du, nahiz eta horren ibilbidearen gehiengoan ezponda baino ez den ikusten; inguruaren ikuspegi zabala dauka, eta horrek Oria ibaiaren ibilguaren zati handi batekiko kontrol handia ematen dio. Esparruko zenbait aldetatik ibai beraren gainean kokatuta dagoen Buruntzako herria (Andoain) ikusten da.

Guztira 2,81 hektareako azalera dauka, eta gailurrean ipar-hego norabidean 100 m luze eta ekialde-mendebalde norabidean 25 m zabal den (2500 m², beraz) eremu bat dauka. Dena den, herriaren terrazadun eremuak garrantzi handia du, arkeologia-lanek erakusten duten moduan.

Eremu hori esparruaren ekialdeko aldetik doa eta hegoaldean mendebaldera biratzen da; ibilbide osoa harresiaren ondoan egiten du eta kota oso uniforme mantentzen du. Terraza horrek 30/35 m-ko zabalera hartzen du toki batzuetan, esku hartu dugun eta egituren aztarnak eta material ugari aurkitu diren eremuan, hain zuzen ere. Esparru honetako eremu lauek 11250 m²-ko azalera hartzen dutela kalkulatu da, hau da, harresitutako azalera osoaren % 40. Herriaren gehieneko aldapa % 32,42koa da, eta gutxienekoa berriz % 22koa.

Esparruaren goiko aldean, uneraren batean harria erauzi zela dirudien bi leku daude; lehenak 40 m² inguruko azalera dauka, eta bigarrenak, berriz 80 m² ingurukoa, haitzaren ebaketa bertikalaren alderdian 2,20 m-ko gehieneko sakonera duenak.



Herriaren goiko aldearen ikuspegi orokorra

Material arkeologikoei eta C_{14} bidezko datazioei esker dakigu, herriaren induskatutako eremua gurearen aurreko aroaren azken mendeen eta gurearen lehenengoan artean kokatzen zela. Horrela, eskuz eta tornuz egindako zeramika-tipologia anitzaz eta jarduera metalurgiko garrantzitsuaren aztarnaz gain (aleak eta ekoizpen-jardueraren aztarnak), beste ale esanguratsu batzuk nabarmentzen dira; besteak beste, beira-orezko besoko zati bat (K.a. 220 eta 80. urteen artean datatua, eta zehatzago, ziurrenik, K.a. 175 eta 125 urteen artean), *Bascunes* txanpon-etxeko zilarrezko denarioa, eta oin alderantzikatuko eta *Iturissa* motako fibulak.

Herri honetan orain arte lortutako C_{14} bidezko datazioak hauek dira:

$2360 \pm 120 \text{ BP}$, $2320 \pm 90 \text{ BP}$, $2310 \pm 55 \text{ BP}$, $2170 \pm 80 \text{ BP}$, eta $1600 \pm 80 \text{ BP}$

2023KO EKINALDIAN EGINIKO LANAK

Irailaren 4tik 22ra bitartean, herri-harresituaren hainbat eremutan lan egin dugu 18 lagunez osatutako lan-taldeak (batez ere, arkeologoak, zaharberritzaileak eta arkeologia-ikasleak).

Aurreko ekinaldietan erabilitakoaren antzeko metodologia erabili dugu, esku hartu beharreko eremua ipar-hego eta ekialde-mendebalde norabideko ardatzak dituzten 5 x 5 metroko laukitan banatuz. Lurra ohiko 10 cm-ko lodierako azal edo geruzatan erauzi dugu, maila edo egitura zehatz bat aurkitu arte.

Geruza bakoitza amaitu ostean, induskatutako azalera osoa 1:20 eskalan marraztu dugu.

Hiru eremutan esku hartu dugu eta bakoitzean helburu ezberdinak jarraitzen genituen:



Indusketa-eremuaren ikuspegi orokorra.

1. HARRESIAREN BARRUALDEKO HORMA-ATALAREN ETA HERRIRA SARTZEKO GAUR EGUNGO MENDI-BIDEAREN ARTEKO EREMUA: 13V ETA 13W LAUKIAK

Aurtengo ekinaldi arkeologikoan abiatutako hiru esku-hartzeetatik lan gehien behar izan duena izan da hau.

Harresiaren barrualdeko horma-ataletik gertuen dagoen tokian sei azal induskatu genituen 2022an, batez ere 13W laukiari eraginez, eta harresiak hegoaldera jarraitzen zuela ikusi genuen bere ibilbide zuzena okertu gabe. Inguru horretan, azal gehiago jaisten jarraitu dugu 2023an, ondoko iparraldeko eremuaren mailaraino iritsi arte. Eremu horretan, aurreko ekinaldi batzuetan, egiturak (zutoin-ziriak eta kereta-hormak) eta aztarna arkeologiko ugari (zeramikazkoak, metalezkoak nahiz beirazkoak) aurkitu genituen. Bi eremuak 10. azala amaitu ostean bateratu dira.



Harresiaren barrualdeko horma-atalaren zabalkundea 13W laukia jaisten doan heinean



13W laukia bizigunearen erdialdeko mailarekin berdindu ostean, 10. azala induskatu ondoren

Ondoko 13V laukiari dagokionez (2022an indusketa-eremua zabaldu zen eta horma hasiberri bat zegoela islatzen zuen harri-lerrokadura bat aurkitu genuen), lur-geruzak jaisten jarraitu dugu eta goiko mailetan duela gutxiko materialak (ehizerako kartutxoak eta teilak) aurkitu ditugu.

Esku-hartzea aurrera zihoan heinean, HM-IE norabideko horma (herriaren babes nagusiari ia erabat paraleloa dena eta 5 m mendebaldera kokatua dagoena) zintzilik geratzen ari dela ikusten da, eta soilik hegoaldeko muturrean, desagertzen den tokian, bi harlauza haundik dituzte barrualdeko ilarak.

13V lauki horren erdialdean, aurrez aipatutakoari elkarzuta den beste harri-lerrokadura bati itsatsita, zalantzazko kronologia duen ikatz-pilaketa bat ageri da.



13V laukiko ikatz-pilaketa

13V laukian 5 azal indusi ditugu, baina denbora faltagatik ezin izan gara iritsi 13W laukiaren mailara, hau da, aurreko ekinaldietan induskatutako erdialdeko bizigunera.



13V laukia lehen planoan, indusketa-prozesuan zehar

2. HARRESIAREN ERORTZE-EREMUA EKIALDEKO TERRAZAN, SARRERAKO MENDI-BIDEAREN IPARRALDERA

Neurri batean herriaren lehenengo ekinaldietan induskatutako gunehonetan, harresiaren metro bat soilik utzi zen agerian, kanpoaldetik nahiz barrualdetik, gainerakoan harresiko harriek eratutako pilaketa eta haren erorkina mantenduz, horma-atalak hondatzea ekiditeko.

Ekinaldi honetan, eremua definitzen duen maldan lan egin dugu, defentsa zegoen tokian, eta defentsari berari ia paraleloa den mendi-bide baten ibilbideak nabarmendutakoak.

Hasiera batean azaleko indusketa egin genuen leku horretan, harresiaren ibilbidea ikusteko; metro gutxira harrien aztarna oro desagertua zen, eta harresiak ekialderako bidea hartzen zuela zirudien, eta beraz, aipatu mendi-bideak moztu eta suntsitu zuela.



Harresiaren ibilbidearen jarraipena

Mendi-bideak sortutako amilburuan egindako lanari esker jakin ahal izan dugu zein puntutan hasten den egitura berri hori babesatuz, eta zein puntutan desagertu den erabat gaur egun herrira igotzen den mendi-bidearekin (ipar-hego norabidea duena eta harresiaren ibilbideari elkarzuta dena) bat egin arteko tarte horretan.

Informazio horiek ez datoz bat aurreko ekinaldietan emandako azalpenekin; izan ere, harresiaren ibilbideak gaur egungo Basagainerako sarreraren parean desfase bat zuela eta sarrerako atea izan zitekeela esaten genuen.



Aurtengo ekinaldian lortutako datuen arabera, badirudi desbideraketa txiki baten bidez harresia arazorik gabe lotzen zela azken urteetan lan nagusiak egin ditugun eremuarekin, eta beraz, haren ibilbidearen zati bat suntsitu egin zutela terrazaren norabide bereko (ekialde-mendebalde) mendi-bidea egin zutenean.

3. HERRIAREN HEGOALDEKO EREMUA: BABES ETA TERRAZADUN GUNEA

Hegoaldeko mutur horretako herriaren goreneko puntu batetik ikusten da esparruaren norabidean (ekialde-mendebalde) biratzen den 24 m-ko zabalerako terraza zabala, herria eremu horretan mugatzen duena. Segituan hegoaldera, 5 m zabaleko malda bat ikusten da terrazaren ibilbide bera jarraituz, eta malda horren azpian 5 m zabaleko beste gun horizontal bat; hala ere, beharbada, zabalera handiagoa izango dute bertara irits gaitzekenean, gaur egun landaretza trinkoa baitago bertan.



Terraza paraleloak dituen iparraldeko eremua garbitzen



Terrazak eta maldak txandaka dituen eremua

Espazio horretan 1 x 1 m-ko 5 kata egin ditugu, ipar-hego norabideko eta 30 m luzeko ardatz batean lerrokatuta:

1. kata

Gainazaleko zotaletik 15 cm-ra harkosko-maila bat ageri da.



2. kata

Bertako azaleramenduari dagokion harkaitz handi batek hartzen du azaleraren gehiengoa; baita neurri ertaineko harri handi batzuek ere.



3. kata

Harritxintzar-maila batek hartzen du azaleraren gehiengoa gainazaletik 15 cm-ko sakonerara. Haren azpian, lurrez eta ustezko erorkin bateko harlauza batzuez osatutako sedimentua dago.



4. kata

Harri txikiak ageri dira gainazaletik 10 cm-ko sakonerara.



5. kata

Zotalaren azpian bertako harri-maila agertzen da.



4. kata 4 m zabaldu dugu ipar-hego norabidean eta beste 4 m ekialde-mendebalde norabidean, inguru horretatik igarotzen den harresiaren ibilbidea zehazten hasteko.



Harresiaren ibilbidea 3. katan



1. eta 2. katako lanak



Zabaldutako kata amaitu ostean, berau estaltzen

MATERIALAK

Aurtengo ekinaldian aurkitutako aztarna arkeologikoak zeramikazkoak, kereta-hormak, harrizkoak, metalezkoak (burdin zepak eta brontzezko eta burdinazko piezak) eta hezurrezkoak izan dira.

Horien artetik nabarmendu behar dira brontzezko 22 pieza (besteak beste, 4 orratz), burdinazko 60 pieza (besteak beste, 13W laukiko espazio txiki batean, harresiaren aldean, kontzentratutako metalezko 41 iltze txiki).



Brontzezko orratza

Ekinaldi honetako beste elementu interesgarri bat animalia-hezurren 40 zatiren aurkikuntza izan da, besteak beste, 13 hortzena. Lurraren azidotasunagatik aztarnategi honetan oso urriak diren aztarna horiek harresitik hurbil aurkitu ditugu, 13W laukian guztiak, eta hondatzetik babestuta geratu ziren babes-egituratik eroritako harriek estalita geratu zirelako.



Eskapula-zatia

Bestalde, nabarmentzekoa da, zeramikazko zati handi bat, ertza ere baduena, eta zaharberritzaileak (ekinaldi honetako lan-taldeko bi zaharberritzailereren laguntzarekin) bi zatitan atera duena. Pieza hori, gaur egun Gordailuan finkatzen eta zaharberritzen dagoena, indusketaren amilburuan sartua zegoen eta haren zati bat ekinaldi honetan berreskuratu dugu.





Hondo zapaleko zatia

BESTE JARDUERA BATZUK ETA ONDAREA JENDARTERATZEA

Indusketa-ekinaldian zehar, aurreko urteetan egin izan dugun moduan, lan-taldea inguruko aztarnategi batzuk ikustera eraman dugu. Aurten, lanaldia amaitu ondoren, ikustaldi bat egin dugu Burdin Aroko Mulisko Gaina (Hernani-Urnieta) multzo megalitikora.



Ikustaldia Mulisko Gaina multzo megalitikora

Era berean, irailaren 21ean, euri ugariko eguna zela baliatuz, lan-talde osoak ikustaldia egin genuen Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentrora (Irun), Sonia San Jose eta Giorgio Studerren eskutik. Arestian esan dugun moduan, lan-taldeko bi kide zaharberritzaileak ziren eta xehetasunez ikusi ahal izan zituzten Gordailuan egiten diren hainbat zaharberritze-prozesu.

Ondarearen zabalkundeari dagokionez, eta zehazki esanda Euskal Herriko eta Gipuzkoako Burdin Aroari buruzkoa, bisita gidatuak egiten jarraitzen dugu Anoetako eta inguruko herrietako hainbat ikastetxetako haurrekin. Bestalde, Anoetako Udalak antolatutako helduentzako bisita gidatu bat ere egin genuen.

Urtero bezala, Udal hori arduratu da indusketa-ekinaldia hasi aurretik Basagain herri osoko belarra mozteaz.



Ikastetxe bateko haur-talde bat 2023ko lan arkeologikoak ikusten



Heldu batzuk Basagaingo herria ikusten

LAN-TALDEAREN OSAKETA SEXUAREN ARABERA:

Indusketako lan-taldea 18 pertsonen osatua egon da ekinaldi honetan, horietatik 11 emakumezkoak ziren eta 7 gizonezkoak.

LAN ARKEOLOGIKOEN OSTEAN HARTUTAKO BABES-NEURRIAK

Lanak amaitu ostean, esku-hartutako eremua estali dugu, aurreko ekinaldietan bezala, landaretza hazi ez dadin eta indusketa-eremua hondatu ez dezan, eta aldi berean lanak errazteko.

Era berean, gaur egun jabetza publikokoa den herri harresitua mugatzen duten mugarrien kokapena begiratu dugu. Mugaketa horrek aurrez deklaraturako arkeologia gunea nahiz Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza baten bitartez herriaren inguru osoan lurjabeei eskuratutako 10m-ko zerrenda zehazten ditu.

Illo horretan, Anoetako Udaleko alkatea eta Kultura arduraduna bertaratu ziren Basagain herriaren inguruko berriki eskuratutako 10 m-ko zerrendako landaretzaren garbiketa aztertzeke. Helburua da, gainerako aztarnategian bezala, erraz bisitatu daitekeen belarrezko eremu bat lortzea eta ibilbidea informazio-panel pedagogikoz hornitzea zenbait puntutan.